Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 53949 O4U7L-AZ8F6-GM26Y EE64859DF7ABE937633E91C2E2BEFF4F1CCE31DA) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=12&idioma=1

*BARRUNDIAKO Udala*
(ARABA)

*Ayuntamiento de BARRUNDIA*
(ÁLAVA)

## 2023KO IRAILAREN 14KO 626. ALKATETZAKO DEKRETUA

IKUSIRIK: Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak (KONTSEILUA) euskararen aldeko borondatezko gizarte-konpromisoa sustatzeko eta hizkuntzaren erabilera sektore guztietara zabaltzeko helburuarekin egiten du lan.

GERTUA IZANIK: Kontseiluaren eginkizun edo misioa gizarte-eragileak, eragile politiko-instituzionalak eta euskalgintzako eragileak, bakoitzak bere esku dituen neurri normalizatzaileak hartzera gonbidatzea da, Barrundian, Araban eta Euskal Herri osoan, maila pertsonal, sozial eta ofizialean, euskararen berreskuratze-prozesuan aldaketa kualitatiboa lortzeko.

Euskararen gizarte-erakundeek elkarrekin indarrak bilduta, euskararen normalizazio-bidean prozesu eragingarria abiatzea, lantzea eta bermatzea da xedea, Euskal Herriko arlo sozio-politikoan, ekonomikoan eta kulturalean.

GERTUA IZANIK: Lan-eremu desberdinetan diharduten eta Barrundian hedadura zabalekoak diren askotariko elkarte-bazkidek osatzen dute Kontseilua, euskarak garapen osoa izateko xedeak batuta.

GERTUA IZANIK: Barrundia osatzen duten herrietan eta Araban euskararen inguruan lanean ari diren gizarte-erakundeek osatzen duten egitura artikulatzeko proposamen teknikoa garatu du Kontseiluak 2023an.

GERTUA IZANIK: Euskararen normalizazio-prozesuan, edozein hizkuntzarenean bezalaxe, funtsezko funtzioa betetzen duten herritarrak ahalduntzeko erremintak inplementatu dira.

GERTUA IZANIK: Kontseiluak euskalgintzatik aparteko eragile eta norbanakoen inplikazioa bilatu du.

GERTUA IZANIK: Kontseiluak hizkuntza-politika egokiak garabidean jartzeko harremanak izan ditu administrazioekin.

***ZERA ERABAKITZEN DUT***

*LEHENA.-* KONTSEILUA erakundeari aurrez aipatutako lan-ildoak udalerrian gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 500,00 eurotako diru laguntza onartzea (2023ko Aurrekontu Orokorretako 335.481.006 partida).

*BIGARRENA.-* Aurrenean aipatutako diru laguntza berehala ordaintzea.

*HIRUGARRENA.-* Honako erabaki hau KONTSEILUA erakundeari jakinaraztea.

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 53949 O4U7L-AZ8F6-GM26Y EE64859DF7ABE937633E91C2E2BEFF4F1CCE31DA) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=12&idioma=1

***BARRUNDIAKO Udala***
(ARABA)

***Ayuntamiento de BARRUNDIA***
(ÁLAVA)

Alkate jaunak agin eta sinatu du, nire, idazkariaren aurrean, eta nik horren fede ematen dut.

ALKATEAK, IDAZKARIAK,